


TXOSTEN EXEKUTIBOA

EUSKADIKO HEZKUNTZA-SISTEMA 2017-2018 / 2018-2019

Euskadiko Eskola Kontseilua



TXOSTEN EXEKUTIBOA

EUSKADIKO HEZKUNTZA-SISTEMA
2017-2018 / 2018-2019

Egoera eta proposamenak

Euskadiko Eskola Kontseilua



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia



Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

Euskadiko Eskola Kontseilua >



**euskadiko eskola
kontseilua** consejo
escolar de euskadi



Ospe handiko pertsonak		
Irakasleak (publikoa + itunpekoa)	Toki administrazioa	
Familiak (publikoa + itunpekoa)	Sindikatuak	Hezkuntza administ.
Ugazaben elkarteak	AZL	Pribatuko titularrak
UPV / EHU	Ikasleak	Zuzendarien elkarteak
Irakaskuntza-kooperatibak	EGK / CJE	Idazkari teknikoa

Hezkuntza-komunitatearen
ordezkapena



Osaketa



Kontseilari-kop.
46

Funtzioak

Gomendioak
eta aholkularitza

Txostena 2020ko iraiaren 24ko Osoko Bilkuran onartu zen, eta behean aipatutako kideak joan ziren:

Nélida Zaitegi (Lehendakaria)	Xabier Etxaniz	Samuel Pasandín
Igone Abio	Iker Frade	Begoña Pedrosa (Batzorde Iraunkorra)
Irati Agorria	Pablo García de Vicuña	Ibai Redondo
Patxi Xabier Aizpurua (Batzorde Iraunkorra)	Ainara Ibañez (Batzorde Iraunkorra)	Ismael Redondo (Batzorde Iraunkorra)
Imanol Andetxaga	Ana Marta Iriarte (Batzorde Iraunkorra)	Ainhua Rotaetxe
Susana Aribayos	Carmelo Martínez	Axier San Miguel
Josu Badiola	Patxi Olabarria	Lucía Torrealday
Josean Bueno (Batzorde Iraunkorra)	Iñaki Orbe (Batzorde Iraunkorra)	Jone Unzueta (Batzorde Iraunkorra)
Agustín Eizaguirre	Mikel Ormazabal	Eva Blanco (Idazkari teknikoa)

Sarrera>

Dokumentu honek, gaingiroki, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko 2017/18 eta 2018/19 ikasturteetako txosteneko datu, ondorio eta proposamen garrantzitsuenak jasotzen ditu, Batzorde Iraunkorrek eginda eta EEKren Osoko Bilkurak onartua. Landutako gaiak sakonago ezagutzeko eta egindako proposamenak justifikatzeko, txosten osoa edo interes pertsonal handiena izan dezaketen kapituluak irakurtzea gomendatzen dugu.

Aurreko txostenetan ez bezala, oraingo honetan gaur egun gure sistemarako funtsezkotzat jotzen diren zenbait gai eta esparru sakon aztertzea erabaki da. Hiru kapitulutako bakoitzak datu garrantzitsuenak ditu, bai eta horietatik ateratako ondorioak eta proposamenak ere.

Aurreko txostenek jarraipena emateko, eranskinetan datu eta zifra nabarmenei buruzko informazioa eguneratu da.

Datuen iturri nagusia Hezkuntza Saila bera da, nahiz eta bertako, estatuko eta nazioarteko beste iturri asko erabili diren. Kasu guztietan, erabilitako iturria edo iturriak aipatzen dira.



Aurkibidea >

1. Euskal Hezkuntza nazioarteko testuinguruan (ET 2020 estrategia eta 2030eko GJHak)	7
Haur Hezkuntza eta haurrentzako arreta.....	8
Konpetentzietan errendimendu baxua duten ikasleek.....	10
Eskola-uzte goiztiarra	12
Etengabeko Ikaskuntza	14
Goi-mailako Hezkuntza edo Tertiarioa amaitu dutenen tasa.....	16
2. Nola aldatu da Euskal Hezkuntza Sistema eta norantz doa?.....	19
3. Euskal Hezkuntza Sistemaren kontu giltzarri batzuk	23
3.1. Euskal hezkuntza-sistemaren emaitzak.....	23
3.1.1. Eskola errendimendua.....	23
3.1.2. Euskalduntzea.....	27
3.2. Prestakuntza, berrikuntza eta irakaskuntza-ekintza	30
3.2.1. Irakaskuntza-ekintzak ikasleen eskola-errendimenduan duen eragina.....	31
3.2.2. Irakasleen garapen profesionala eta haientzako laguntza.....	32
3.2.3. Zuzendaritza-taldeak hautatzeko, prestatzeko eta ebaluatzeko eredia.....	38

1. Euskal Hezkuntza nazioarteko testuinguruan (ET 2020 estrategia eta 2030eko GJHak)

Hezkuntza-sistema baten hobekuntzak baloratzeko, emaitza akademikoen luzetarako konparazio-analisi bat edota eskolatzeko-prozesuen barne-mailako balorazio bat egiteaz gain nahitaezkoa da hezkuntza-prozesuen, ikasketen emaitzen eta jarduketara-ildoen kalitatea baloratzea eta kalitate hori nazioarteko mailan arrakasta duten beste hezkuntza-sistema batzuen kalitatearekin alderatzea, eta elkarlanean aritzeko jarrerarekin.

Bada, horixe da lehenengo kapitulua euskal hezkuntzak nazioartean zein egoera duen aztertzeraz eta baloratzera bideratzeko arrazoia, eta Euskadi partaide duten bi proposamen garrantzitsuenak hartu ditugu erreferentziazat: Europar Batasunak sustatzen duen *Hezkuntza eta Prestakuntzarako 2020ko Estrategia* (ET 2020), Europar batasunak bultzatua, eta UNESCOren programa, 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuetan (2030eko GJHak) zehazten dena eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsi zuena.

Euskal hezkuntza-sistemaren egoera ona da nazioarteko testuinguruan, Europaren 2020rako Estrategiaren adierazleei dagokienez. Europako hiru adierazletan (Haur Hezkuntza, eskola-uztea eta hezkuntza tertziarioa), Euskadik datu bikainak dauzka; hala ere, bi adierazletan (konpetentzien errendimendumaila baxuan eta helduentzako hezkuntza etengabea) ez da iristen Europako Batzordearen strategiak finkatutako mailara, Europako herrialde gehienekin bat eginez.

Adierazleak	Euskadi 2018	EB-28 2018	Xedeak 2020
Haur-hezkuntza	100	95,4	>95
Eskola uztea	6,9	10,6	<10
Hirugarren Hezkuntza	57,1	40,7	>40
Oinarrizko gaitasunak			
• Irakurketa	-	-	<15
• Matematika	18,1	22,1	<15
• Zientziak	18,6	21,3	<15
Etengabeko Ikaskuntza	12,7	11,1	>15

Haur Hezkuntza eta haurrentzako arreta

(2020rako HELBURUA: lau urtetik derrigorrezko hezkuntza hasi arteko adingabeen % 95ek, gutxienez, haur-hezkuntzan parte hartu behar du.)



Egoera


- Kalitatezko lehen haurtzaroari kalitatezko arreta eta zaintza emateak eragin positiboa du garapen emozionalean eta hobekuntza kognitiboan. Gainera, arreta hori bereziki onuragarria da ingurune behartsuetako ikasleentzat.
- Bai Europar Batasunak (4 urtetik aurrerako haurren % 95,4 eskolatzen ditu), bai Euskadik (%100era iristen da) 2020rako ezarritako helburua gainditzen dute.
- 3 urtetik beherakoen zaintzari dagokionez, EB-28k 0-2 urte bitartekoen % 17 bakarrik eskolatzen du; Euskadin, berriz, 2 urteko haurren % 94 eskolatzen du (Estatuko batez bestekoa baino 35 puntu gehiago), urtebete dutenen % 46 eta urtebete baino gazteagoen % 19.
- Eskura ditugun datuen arabera, haurrak adin horretan eskolatzen ez dituzten euskal familien herenek oinarrizko gabezia-egoera eta lan-zailtasunak dituzte. Badirudi ez eskolatzea ez dela plaza-faltaren ondorio, beste gai batzuen ondorio baizik. Izan ere, European 15 puntuko aldea dago familia behartsuen eta ez direnen arteko eskolatzeari dagokionez, eta Euskadin 13 puntura iristen da.
- Datu deigarri bat da azterlan eta ikerketa gutxi daudela Euskadiko haur-hezkuntzaren kalitateari buruz.



Proposamenak

- Hezkuntza Sailaren eta gizarte-zerbitzuen artean (udalekoak, foralak...) lankidetzeta-egiturak ezartzea, goiz eskolatzera animatzeko jarduketak sustatzeko.
- Familia batzuk seme-alabak ez eskolatzea erabakitzeko arrazoiak argituko dituen ikerketa sakona egitea, bereziki behar gehien dauzkaten familietan.
- Haur Hezkuntzako lehenengo zikloaren egoerari buruzko txostena egin dezala agintzea ISEI-IVEIri, Europaren egiturazko adierazleetan oinarrituz.
- Haurreskolak doakoak izan daitezen urrats eraginkorrak lehenbailehen ematea.

Lau urte eta derrigorrezko hezkuntzaren hasierako adinaren arteko eskolatzeta tasa garbia. 2016 eta 2017 urteak



Konpetentzietan errendimendu baxua duten ikasleek

(2020rako HELBURUA: Irakurketako, Matematikako eta Zientzietako oinarriko gaitasunetan errendimendu baxua duten 15 urteko ikasleen ehunekoa % 15etik beherakoa izan behar da.)



Egoera

- EB-28ko eta autonomia-erkidegoetako estatu gehienek ez dute lortu errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa % 15etik behera jaitea PISA azterlanean neurtutako hiru gaitasunetan. Euskadi Europako helburutik 3 puntura dago.
- Europako herrialde gehienetan aldaketa gutxi gertatu dira ikasleen gaitasunak hobetzeko hezkuntza-politikan. Euskadiren egoera positiboagoa da:
 - nazioarteko proba estandarizatuetan parte hartzea,
 - diagnostiko-ebaluazio propioak,
 - errendimenduari buruzko txostenak izatea,
 - ebaluazio horien emaitzen erabilera ikastetxeak hobetzeko,
 - desabantailan dauden ikasleak dituzten ikastetxeei laguntzeko programak egotea.
- Hobetu beharreko arlo batzuk daude:
 - ebaluazio estandarizatu ugari daude,
 - emaitzak gutxi erabiltzen dira ikastetxeko proiektuetan,
 - eskola-errendimendu baxua eraginkortasunez tratatzeko prestakuntza behar izatea.



Proposamenak

- Kanpo-ebaluazio estandarizatuaren (propioen nahiz nazioartekoen) zentzuari, xedeari eta egokitasunari buruzko hausnarketa sakona egitea.
- Sistemaren egoera zein den jakiteko diagnostikoaren analisi bat egitea, errendimenduari buruzko datuak eta kanpo-ebaluazio estandarizatuek emandako emaitzak alderatuz.
- Kanpo-ebaluazioetako datuen egokitasunari eta erabilgarritasunari buruzko informazioa biltzea ikastetxeetatik (ISEI-IVEI), praktikak bideratzeko
- Ikastetxeek eskola-porrota jasateko arriskuan dauden ikasleen tratamenduan dituzten beharrak, proposamenak eta esperientziak ezagutzea.
- Ikastetxeetan beren datu akademikoak eta emaitzak kanpo-ebaluazioetan erlazionatzeko gaitasuna garatzea, laguntza-zerbitzuen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren laguntzarekin, jardunbide hobeak izan daitezten.
- Gizonezkoen eskola-uztean eta eskola-porrotean eragiten duten faktore espezifikoak aztertzea, beharrezkoak diren erabakiak aztertzeko.



Eskola-uzte goiztiarra

(2020rako HELBURUA: Hezkuntza eta prestakuntza goiz uzten duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehuneko % 10 baino txikiagoa izan behar da.)



Egoera

- Hezkuntza-maila baxua duten pertsonak aukera gehiago dituzte pobrezia, osasun arazoak eta gizarte-laguntzarekiko mendekotasuna izateko; horregatik, Europako helburua da 18 eta 24 urteko gazteen artean eskola goiz uztea % 10etik behera egotea.
- Euskadik (% 6,9 2018an) gainditu egin du jada, eta Europako lurraldeetako bat da, hain zuzen ere, goiz abandonatuta gutxien duena. Europa (% 10,6) helburutik oso gertu dago.
- Europako eta autonomia-erkidegoetako ia herrialde guztietan, emakumeek gizonak baino gutxiago uzten dira. Euskadik nabarmen murriztu du bi sexuen arteko aldea ehuneko 5 puntu baino gutxiagora.
- Euskadiren uzte-tasa goiztiarra hobetzen jarraitzea posiblea da, baldin eta indarrean dauden estrategiak mantentzen eta hobetzen badira eta Europan arrakasta izan duten beste proposamen batzuk abian jartzen badira.






Proposamenak

- Euskadiko eskola-uzteari buruzko azterlan sakona egitea:
 - genero-arrakalari erlazioa,
 - eskola uzten dutenen jatorria,
 - lortutako gehieneko prestakuntza-mailak, enplegagarritasun-egoera,
 - ezaugarri sozial eta familiarrak,
 - jarraitutako ibilbide akademikoak,
 - intzidentzia handiena duten lurralde-nukleoak eta eremuak.
- Eskoletako erregistroen datuak erabili ahal izateko neurriak sustatzea, ikasle mota horiei buruzko luzetarako ikerketak egiteko.
- Aniztasunari eta zailtasunak dauzkaten ikasleei arreta emateko programa eta neurri batzuk ebaluatu eta aztertzekeo prozesuak sustatzea.

Eskola uzte goiztiarren ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera. Euskadi



Etengabeko Ikaskuntza

(2020rako HELBURUA: 25 eta 64 urte bitarteko helduen % 15ek, gutxienez, etengabeko ikaskuntza-prozesuetan parte hartu behar du.)



Egoera


- EBko oso herrialde gutxi parte hartu dute prestakuntza-jardueretan helduen % 15ek. Euskadik ere, % 12,7rekin, ez du lortu oraindik.
- 2009tik 2018ra bitartean, Euskadik 6,6 puntu handitu du goi-mailako ikasketak dituzten 25-64 urte bitarteko helduen ehunekoa, eta 8 puntu murriztu da bigarren hezkuntzatik beherako ikasketak dituztenen ehunekoa.
- Euskadik bere herritarren bizialdi osoko ikaskuntza bultzatzeko lege- eta antolaketa-tresnak ditu (1/2013 Legea, urriaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bizialdi osoko ikaskuntzari buruzkoa (2013-10-17ko EHAA).
- Euskal herritarrentzako giltzarri den eremu honetan, ez dago:
 - Premien eta eskarien diagnostikoa.
 - Askotariko ekimenak koordinatzen dituen urte anitzeko plana.
 - Eskaintzen kalitateari buruzko ebaluazioa.
 - Hobera egiteko nahiz bikoiztasunak deuseztatzeko proposamenak.



Proposamenak

- 1/2013 Legeak finkatu dituen eta oraindik garatu ez diren oinarrizko alderdiak abian jar daitezten bultzatzea:
 - Bizialdi osoko ikaskuntzarako Euskal Kontseilua sortzea.
 - Euskadiko ikaskuntza etengabearen egoerari buruzko diagnostiko orokorra egitea.
 - Europaren adierazle hau hobetzen eta betetzen lagunduko duten xedek eta programak finkatzea, Euskadi oraindik ez baita adierazlea betetzera iritsi.

Prestakuntza-jardueretan parte hartu duten 25-64 urte arteko helduen ehunekoa. 2018



Goi-mailako Hezkuntza edo Tertziarioa amaitu dutenen tasa

(2020rako HELBURUA: hezkuntza tertziarioa arrakastaz bete duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoak, gutxienez, % 40 izan behar du.)



Egoera

- Euskadik, hezkuntza tertziarioko titulazioa duten 30-34 urteko pertsonen % 57,1ek, 17 puntutan gaintitzen du 2020ko erreferentzia-puntua eta EBko herrialdeen batez bestekoa.
- Sexuen arteko aldea 10 puntukoa da emakumeen alde, EBko batez bestekoaren antzekoa, nahiz eta gure kasuan aldea murriztu egin den azken ikasturteetan.

Adierazle honetan ez da proposamenik egin, ezarpen- eta garapen-eremua (goi-mailako ikasketak) Euskadiko Eskola Kontseiluaren eskumenetatik kanpo dagoelako.




UNESCOren 2030 Agendaren garapen jasangarrirako helburuak eta EBren ET 2020 Europa arteko erlazioa

ET 2020 strategiaren erreferentziazko puntuak xede nagusi batzuetan bat egiten dute UNESCOren 2030eko Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) 4. helburuaren jomugekin.

GJHen 4. helburuaren jomugen eta adierazleen eta EBren 2020 ET strategiaren erreferentziazko puntuen arteko erlazioa.

GJH adierazleak	2020 ET erreferentziazko puntuak
4.1.1. adierazlea. Haur eta gazteen ehunekoa: a) 2/3 mailetan, b) Lehen Hezkuntzaren amaieran eta c) Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloaren amaieran i) irakurmenean eta ii) matematikan gutxieneko kompetentziamaile lortu dutenena, sexuaren arabera.	Errendimendu baxuko 15 urteko ikasleen ehunekoa: irakurmena, Konpetentzia matematikoa eta zientifikoa.
4.2.1. adierazlea. Osasunari, ikaskuntzari eta ongizate psikosozialari dagokienez ondo bideratutako garapena duten 5 urtetik beherako haurren ehunekoa, sexuaren arabera. 4.2.2. adierazlea. Ikaskuntza antolatuan dagoen parte-hartzearen tasa (L.H.an eskolatze adin ofiziala baino urtebete lehenagokoa), sexuaren arabera.	Haur Hezkuntza eta haurrentzako arreta (4 urteetatik derrigorrez eskolatu arteko adinera bitartean).
4.3.1. adierazlea. Gazteek eta helduek azkenengo 12 hilabeteetan hezkuntza eta prestakuntza formal nahiz ez-formalean duten parte-hartzearen tasa, sexuaren arabera.	Hezkuntza eta prestakuntza goiz uzten duten pertsonak (18 eta 24 urte artean).
4.4.1 adierazlea. Informazioaren eta komunikazioen teknologian (IKT) ezagutzak dauzkaten gazteen eta helduen ehunekoa, ezagutza teknikoaren arabera.	Hezkuntza tertziarioan titulua dutenak (30 eta 34 urte artean).
4.5.1. Adierazlea. Zerrenda honetako hezkuntza-arloko adierazle guztietan dauden eta banakatu daitezkeen parekidetasun-indizeak (emakumeak/gizonak, landa-eremuak / hiri-eremuak, goragoko / beheragoko aberastasun-kintila eta beste batzuk; adibidez, desgaitasuna, herri indigenak eta gatazken ondorioak).	
4.6.1 adierazlea. a) Alfabetatzean eta b) aritmetikan gutxienez konpetentzia funtzionaleko maila finko bat duten adin-tarte jakin bateko biztanleen ehunekoa, sexuaren arabera.	Errendimendu baxuko 15 urteko ikasleen ehunekoa: Irakurmena, Konpetentzia matematikoa eta Konpetentzia zientifikoa.
4.7.1 adierazlea. i) Munduko herritartasunen inguruko heziketaren eta ii) garapen jasangarrirako heziketaren txertatze-maila, genero-berdintasuna eta giza eskubideak kontuan hartuta, maila guztietan: a) hezkuntza-politika nazionaletan, b) ikasketa-plan eta -programetan, c) irakasleen prestakuntzan eta d) ikasleen ebaluazioan.	




2. Nola aldatu da Euskal Hezkuntza Sistema eta norantz doa?

35 urteko garapenaren ondoren, beharrezkoa da hizkuntza-ereduen azterketa sakona egitea. Sei geruzen bilakaera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua: A, B, D publikoa eta A, B, D pribatu itundua), hasiera batean ikasleen sektore desberdinei zuzendutakoa euskararekin duten harremanaren arabera, aurreikusitakoez bestelako ibilbideetatik igaro da, eta gehienbat D ereduaren alde egin da, familia-hizkuntza eta testuinguru soziolinguistikoa alde batera utzita.

Orain arte aurreratutakoa eta lortutakoa oso garrantzitsuak izan dira. Euskararen egungo egoera hizkuntza-ereduak ezarri zireneko egoerarekin alderatuz gero, oso nabarmena da aurrerapena.

Geruzen analisiak horietako bakoitzean biltzen diren ikasleen desberdintasun sozioekonomikoak eta linguistikoak erakusten ditu. (2017ko Ebaluazio Diagnostikoan lortutako datuak, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan).

Haur Hezkuntzako estratu bakoitzak eskolatzen dituen ikasleen ehunekoaren bilakaera 2000-2019



A Eredu Publikoa

- A eredu publikoa gainbehera doan estratua da, ia ez da existitzen. Errendimendu akademiko baxuan eragin handiena duten aldagai guztiak jasotzen ditu: ISEC baxu bat, bi ikasturteetan etorkinen % 50etik gora, ikasle euskaldunik gabe, eta desegokitasun-egoeran dauden ikasleen ehuneko handi bat (% 65,2 DBHko 2. mailan).

B Eredu Publikoa

- Estratu honek sistemaren %2 baino gutxiago du eta beheransko joera erakusten du. Haur hezkuntzako 21 eskolatan baino ez da egoten eta ikasleen etengabeko galera joera dauka.
- A eredu publikoaren ezaugarri berberak bereganatzen joan da: euskarazko errendimendu txikia, ISEC baxua, bi ikasturteetan, ikasle etorkinen % 30 inguruk ez du ia ikasle euskaldunik izan (%3,2 lehen hezkuntzako 4. mailan eta %0,4 DBHko 2. mailan), eta DBHko 2. mailan, berriz, %51,8 ikasle ez dira egokiak.

D Eredu Publikoa

- Bere hazkunde geldiezin eta iraunkorrak eta bere presentziak euskal hezkuntza-sistemaren ardatz bihurtzen dute. Lurralde-banaketa handiena duen estratua da, eta, horregatik, ikastetxe mota gehien dituen, proiektuen tamainari, ezaugarriari eta motei dagokienez.
- Barruan hartzen du orain dela gutxira arte A eta B eredu publikoetan banatutako askotariko egoerak eta ikasle-motak: ikasle etorkinak eta aniztasuna, bai hezkuntza-zailtasunari dagokionez, bai bikaintasunari dagokionez: ISEC erdi baxua/altua, ikasle euskaldunen ehuneko handiagoa (%28, Lehen Hezkuntzako 4. mailan), ikasle etorkinen ehuneko txikiagoa (%10,7 LH4an eta %6,2 DBH2an) eta egokitasunik gabeko ikasleen ehuneko txikiagoa. Promozio akademikoko mailarik altuenak eta konpetentzietan emaitzarik onenak dituen estratu publikoa da.



Itunpeko A Eredu Pribatua


- Itunpeko sare pribatuan matrikulazio txikiena duena da (% 17 eta % 5 soilik haur-hezkuntzan).
- ISEC batez besteko altuena da, ia ez dago ikasle etorkinik, ezta ikasle euskaldunik ere, eta % 3,5 baino ez dira egokiak ez diren ikasleak. Maila oso altuak lortzen ditu igarotzen akademikoan eta emaitza onak gaitasunetan (euskaraz izan ezik).
- Bigarren Hezkuntzan, ISEC altua izanik, ikasleen % 11,8 etorkinak dira eta % 22,1 ez dira egokiak.
- Estratu horretan bi ikastetxe mota daude: batzuek aniztasun txikia eta ISEC altua dute, eta beste batzuek A eta B eredu publikoen ezaugarrietara hurbiltzen dira.

Itunpeko B Eredu Pribatua

- Itunpeko sare pribatuaren herena da, baina haur-hezkuntzan joera apur bat uzkurragoa da.
- ISEC batez besteko altua bada ere, maila baxuko ikasleen (% 20), ikasle etorkinen (% 9,4) eta desegokitasun-egoeran daudenen (% 19,7) ehuneko handia dago horretan.
- Gaitasunetan emaitza onak lortzen ditu (euskaraz izan ezik).

Itunpeko D Eredu Pribatua

- Sarean nagusi den eredua da, Haur Hezkuntzan % 60tik gorakoa izateraino.
- Gehienbat familia euskaldunak eskolatzen ditu: % 40tik gora Lehen Hezkuntzan eta % 30etik gora DBHn.
- ISEC maila altua du, maila sozioekonomiko baxuko ikasleen portzentaje txikiarekin (soilik % 2 Lehen Hezkuntzan); ikasle etorkineekin (% 3 bi etapetan) eta desegokitasun-egoeran dauden ikasleen portzentaje oso txikiarekin.
- Maila oso altuak lortzen ditu igarotze akademikoan, eta emaitza onak lortzen ditu gaitasunetan eta euskaraz.



Proposamenak

- Gure sistemaren etorkizunari buruzko eztabaidan eta gogoetan, arreta jarri behar da ikasle guztien ikaskuntzan arrakasta lortzean, betiere gizarte-kohesioa bermatuta.
- Euskararen Normalizazioari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legean jasotako aurreikuspena —derrigorrezko irakaskuntzako ikasketak amaitzean ikasleei bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktiko nahikoa izateko benetako aukera baldintza berdinetan bermatzekoa (17. artikulua)— sakon aztertzea.
- Analisi horretan, honako gai hauek jorratu beharko lirateke, besteak beste: euskararen hizkuntza-tratamenduan eta ikaskuntzaren emaitzak eredu bakoitzaren barruko errealitateetan, eta hizkuntzaren, gizarte eta ekonomiaren eta kulturaren testuinguru bereizgarriek ikasleen ikaskuntza-eritmoetan eta -emaitzetan duten eragina, bai euskarari dagokionez, bai hizkuntza horretako gainerako curriculumaren ikaskuntzei dagokienez.
- Helburu horretan aurrera egiteko aukeretan hizkuntza-ereduak baino modu erabakigarriagoan eragiten duten aldagai-baldintzatzaile batzuk daudelako.
- Ikastetxeen irakasleen trebakuntza ikastea, euskararen erabileran eta metodologia didaktiko espezifikoetan ikastetxeen hizkuntza –proposamenei erantzun egokia emateko.
- A eta B estratu publikoetako ikasleek eta familiek hezkuntza-erantzun berezia jaso beharko lukete. Iragankorra, ahal den neurrian, behar espezifikoiei erantzun pedagogikoa emateko.

3. Euskal Hezkuntza Sistemaren kontu giltzarri batzuk

Txostenaren azken kapitulu honetan, hezkuntza-sistemaren kalitatean duten eraginagatik funtsezkotzat jotzen diren bi aldagai aipatzen dira:

- Hezkuntza-sistemaren emaitzak.
- Prestakuntza, berrikuntza eta irakaskuntza-ekintza.

3.1. Euskal Hezkuntza Sistemaren emaitzak

3.1.1. Eskola errendimendua

Ezin da Hezkuntza-sistema baten baliozkotasuna eta eraginkortasuna neurtu, ikasleen errendimendua eremu bikoitz honetan balioetsi gabe: eskola-eremua, irakasleek hezkuntza prozesu konplexu eta dimentsio anitzeko baten emaitza gisa baloratzen dutena eta ebaluazio estandarizatu propio nahiz nazioartekoen ondoriozko kanpo-errendimendua, objektibotasun eta konparazio-ahalmen handiagoko tresna gisa aurkezten dena.

Bi ikuspegi osagarri, ikastetxeek eta hezkuntza-administrazioak erabakiak hartzeko informazio baliotsua ematen dutenak:

1. Emaitza akademikoak barne-ebaluazioetan.
2. Kanpo-ebaluazioen emaitzak.



Emitza akademikoak barne-ebaluazioetan



Egoera

- Euskadik bilakaera positiboa izan du, bai irakasgai guztiak gaitzen dituzten ikasleen ehunekoan, bai mailaz igotzen direnen ehunekoan, batez ere DBHn eta Batxilergoan.
- Egokitasun-tasak (adinari dagokion mailan eskolatutako ikasleak) behera egin du 2000 urteaz geroztik, nahiz eta 15 urterekin hobekuntza txiki bat egon den (% 27 ez da egokia).
- Ikasturtea errepikatzea, murriztu bada ere, funtsezko erronka da oraindik derrigorrezko etapetan:
 - % 12,3k errepikatu du Lehen Hezkuntzan. Ehunekorik handiena Lehen Hezkuntzako 2. mailan dago, ikerketa eta azterlan gehienek adierazten baitute kaltegarriagoa dela ikasle ahulentzat.
 - Oro har, errepikapena ikasleen ikaskuntzarako onuragarria izan daitekeen neurritzat hartzen duen kultura profesionala hautematen da.
- Euskadi da graduazio-tasa gordinaren ehuneko handiena duen erkidegoa 15 urterekin DBHn (% 86, estatuko batez bestekoa baino 8 puntu gehiago) eta 17 urterekin Batxilergoan (% 67,7, estatuko batez bestekoa baino 12 puntu gehiago).



Proposamenak

- Errepikapenaren salbuespenezko eta subsidiario izaerari buruzko hausnarketa prozesu sakona bultzatzea, erabilera murrizten duten alternatiba eraginkorrei eta hezkuntza estrategiei buruzko informazio egiaztatua emanez.
- Ikaskuntzaren ebaluazioa sakonki berrikustea, gaitasun guztiak hobetzera bideratuta.
- Emaidza akademikoei eta kanpo-ebaluazioei buruzko gogoeta-lana areagotzea, eta ikasleen mailaz igotzeko/errepikatzeko erabakiei buruzko ikuskapena eta aholkularitza berariaz areagotzea.
- Irteera-profilari loturiko oinarrizko eta ezinbesteko ikaskuntzak argi zehaztea baita curriculum-edukiak egokitzea ere
- Euskal kulturaren curriculum-a garatzea eta eguneratzea.
- Konpetentzia akademikoen nahiz konpetentzia pertsonal eta sozialen ebaluazioan irakasleen prestakuntza sustatzen eta errazten jarraitzea, eta horretarako material egokiak ematea.

Kanpo-ebaluazioen emaitzak



Egoera

- Gure sisteman eragin handiena duten kanpo-ebaluazioak bi dira: diagnostiko-ebaluazioa, Hezkuntza Sailak derrigorrezko bi etapetako tarteko mailan (Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila) bultzatu eta garatutakoa, eta PISA nazioarteko azterlana, ELGAk 15 urteko ikasleei sustatutakoa, Derrigorrezko Irakaskuntza amaitzean.
- Ez dago azken diagnostiko-ebaluazioei buruzko txosten exekutibo berririk.
- 2018ko PISAn, Euskadik matematikarako gaitasunaren emaitzak hobetu ditu, ELGAko eta estatuko batez bestekoaren gainetik. Ikasleen % 18,1ek gaitasun-maila txikia du.
- Gaitasun zientifikoari dagokionez, 2015ean galdutako puntuazioaren zati bat berreskuratu du eta ELGAko eta estatuko batez bestekoan kokatu da. Ikasleen % 18,6k errendimendu txikia du.



Proposamenak

- Ikastetxeen inplikazioa lortzea bi ebaluazioak egiteko, ebaluazio horien zentzuari, xedeari eta ezaugarriari eta potentzialtasuneari eta mugei buruzko informazioa areagotuz.
- Ikasleen trebetasun ez-kognitiboari buruzko berriarazko tratamendua bultzatzea, probak egiteko ahaleginari, motibazioari eta iraunkortasunari lotutako urritasun orokorra konpentsatzeko.

3.1.2. Euskalduntzea

Irakaskuntza elebiduna, funtsean, honako xede honetan oinarritu izan: erkidegoko ikasle guztiek, derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran, haien egoera edo ezaugarri pertsonal zein familiarrak edozein izanik ere, bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa lortu behar dute.


Gaur egun, badirudi beharrezkoa dela hausnarketa sakona egitea euskalduntze-prozesuaren egoerari buruz eta, bereziki, D ereduan eskolatutako ikasleen (publikoa zein itunpeko pribatua) euskarazko gaitasun-egoerari buruz, eredu nagusia delako.





Egoera

- Euskarazko hizkuntza-gaitasunaren emaitzek behera egin dute duela urte batzuetatik hona derrigorrezko bi etapetan. Diagnostikoaren azken ebaluazioan, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 37k eta DBHko % 46k maila baxua dute euskaraz.
- Ebaluazio propioen eta nazioartekoen emaitzen arabera, D ereduko ikasleen irakurmena ez da nahikoa eredu horretako ikasleen zati handi batean.
- Bi etapetako D ereduko (publikoa eta itunpekoa) ikasleen ehuneko handi batek, ikaskuntza prozesu osoa euskaraz egiten badute, maila baxua erakusten du euskaraz. Ikasleen profila aldatzea izan daiteke arrazoi bat.
- Gaur egun ezin da D eredu bakarraz hitz egin, hizkuntza- eta hezkuntza-egoeren aniztasunaz baizik, eta horrek eskatzen du ikasleen eta ingurune soziolinguistikoaren ezaugarrietara egokitutako hezkuntza-planteamendua eta hizkuntza-tratamendua izatea.






Proposamenak

- Irakurketa-planekin eta irakurketa-ulermenarekin lotutako lana areagotzea, eta estrategia kognitiboak eta metakognitiboak erabiltzea eta irakurmena gustuz edo dibertsioz hobetzen lagunduko duten proiektuak bultzatzea irakurmenaren errendimenduarekin duten lotura handia dela eta.
- Euskal Hizkuntza eta Literaturaren egungo curriculumaberrikustea derrigorrezko bi etapetan: hizkuntzaren ikaskuntzaren eta jabetzearen oinarriko elementuak identifikatzea eta egoera eta testuinguru desberdinetarako sekuentziario egokia ezartzea.
- Hizkuntza-arloen eta gainerako arloen eta ikasgaien arteko lankidetzaren areagotzea, jakintza-arlo desberdinetako testu espezifikoak ulertzeko estrategiak hobeto ulertzeko eta erabiltzeko.
- D ereduari buruzko azterketa sakon bat egitea, eredu hori osatzen duten hizkuntza- eta hezkuntza-errealitateak identifikatu eta ezaugarritu ahal izateko eta egoera eta testuinguru desberdinetara egokitutako antolaketa- eta metodologia-estrategien egokitasuna baloratzeko.
- Hizkuntzak sistematikoki ebaluatzea (aurrebaluazioa, glotobiografia), haien tratamendu optimoa sustatzeko eta irakasleen prestakuntza orientatzeko metodologia aurreratuetan eta hizkuntzaren ikaskuntzako etapa desberdinetako irakasleen arteko lankidetzan.
- Euskarazko komunikazio-gaitasuna areagotzea, didaktika eta metodologia arloan, ratio egokitzapenean eta baliabide pertsonaletan inbertsioak eginez.

3.2. Prestakuntza, berrikuntza eta irakaskuntza-ekintza

XXI. mendean munduak aurre egin beharreko aldaketa sozialek, zientifiko-teknologikoek eta erronka berriek zuzenean eragiten diote hezkuntza-sistemari, eta zalantzan jartzen dituzte haren forma eta modu profesional asko. Hortaz, aldaketa sakonak eskatzen dituzte hura osatzen duten esparru guztietan. Horregatik, gaur egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko beharrezkoak diren irakaskuntza-konpetentziak identifikatzeko kezka dago mundu osoan. Irakaskuntza-lanbidea gero eta konplexuagoa eta zorrotzagoa da eta konpetentzia pertsonal eta sozialak barne hartzen dituen irakaskuntza-kualifikazio handiko pertsonak eskatzen ditu.



3.2.1. Irakaskuntza-ekintzak ikasleen eskola-errendimenduan duen eragina



Egoera

- Europako Batzordearen eta ELGAren txosten eta gomendioek uste dute irakasleen prestakuntzaren kalitatea hezkuntza-sistemak hobetzeko zutabeetako bat dela, baita irakasleen hautaketako, laguntzako eta garapen profesionaleko prozesuak zuzentzen dituzten politikak ere.
- Ikasleen ikaskuntzan eragin handiena duten aldagaiak ezagutu behar dira, eta datuak eta emaitzak badauzkagun arren (ebaluazio propioetan eta nazioartekoetan parte hartzeagatik, baita ikerketa propioetan ere), ondorioak ez dira behar bezala aztertu eta zabaldu.
- Ez dugu oinarritzko informaziorik, besteak beste, funtsezkoak diren lau aldagairen inguruan: ikasgelan irakasteko denbora nola erabiltzen duten; materialak eta baliabideak nola erabiltzen dituzten, IKTak barne; irakasleek irakatsi eta ikasteko prozesuetan zein oinarritzko jardunbide dituzten eta ikasgelaren kudeaketa egkirako zein gaitasun eta baliabide erabiltzen dituzte, eta askenik, partaidetza eta ikasleekiko harremana.



Proposamenak

- Diagnostiko-ebaluazio guztietan esplicituki sartzea irakaskuntza-praktika eta -estrategiei buruzko datuen bilketa.
- Irakaskuntza-jardueraren azterketa egitea: estrategia eta jardunbide nagusiak, irakasle ikasle harremanen ezaugarriak, metodologiak, talde-lana..., eta irakasleen irakaskuntza ekintzak ikasleen emaitzetan duen eragina eta eskolak haien bizi-kalitatean duen eragina aztertzea.

3.2.2. Irakasleen garapen profesionala eta haienzako laguntza

Irakasleen prestakuntza eta garapen profesionalak eskatzen du etengabeko prestakuntza jarraitutasuna ezartzea, honako hauek modu sistematikoan barne hartuko dituena: irakasleen hasierako prestakuntza, lanbiderako hastapenak eta etengabeko lanbide-garapena ibilbide osoan zehar, bakarka eta taldean ikasteko aukerak bilduko dituena. Hau eskatzen du koordinazio eta lotura koherentea irakaskuntzan inplikaturako instituzio, erakunde, talde eta zerbitzuek kudeatzen dituzten prestakuntza-prozesuen artean.

Laguntza eta babeserikastetxeko jardun profesionalaren hasieran




Egoera

- Ikastetxe batek dakarren lan-dinamikan eta lanbide-harremanean sartzea funtsezko aldietako bat da hezkuntzaren esparruan identitate profesionala prestatzeko eta eraikitzeko
- Ikaste-prozesu handia dagoela lehen jardun-urteetan, eta, horregatik, gomendatzen dute hasierako aldi hori baliatzea irakasleen garapen profesionala bultzatzeko, haien irakaskuntza-jardunean aurrerapena eta eraginkortasuna maximizatzearen. Kontuan hartu behar da, kasu askotan, bitarteko irakasle gisa hasten direla.
- Praktiketako funtzionarioen ebaluazio-lan horrek ez dituela estaltzen, egiten den moduan, sisteman sartu berri diren irakasleen laguntza- eta babes-beharrak, eta, batez ere, ezin dela irakaskuntzara bultzatzeko programatzat hartu, nazioartean ulertzen den bezala.
- Irakasle berri horien prestakuntzan, jarraipenean eta babesean ahalegintzeak onura handiak ekar diezazkioke hezkuntza-sistemari epe luzera. Horregatik, ezinbestekoa da euskal hezkuntza-sistemako ikastetxe publikoetan irakasle berriak sartzten ari diren une garrantzitsua hauetan.



Proposamenak

- Praktiketako funtzionarioen ebaluazio-prozesua aztertzea, gaur egun abian den protokoloaren balizko hobekuntzak identifikatzeko eta ebaluazio-programa berri bat proposatzeko. Programa horrek berekin ekarri behar du jarraipen biziagoa egitea eta praktiketako tutoreen aldetik harreman- eta laguntza-maiztasun handiagoa eta, horretarako, figura hori egokitu beharra dago, eta berriazko laguntza, prestakuntza eta aholkularitza eman behar zaizkio.
- Hasieran, modu esperimentalean, irakaskuntzara bultzatzeko programa bat abian jartzeko aukera aztertzea, (Irakasleei laguntzeko programa sistemikoa, lanbidean sartzeko, arazoei aurre egiten laguntzeko, haien autonomia profesionala indartzeko eta etengabeko garapen profesionala errazteko) hiru arlo hauek kontuan hartuta: tutoretza- edo aholkularitza sistema bat, bilerak eta lan programatua zuzendaritza-taldearekin eta beste kide batzuekin; autoebaluaziorako eta koebaluaziorako estrategiak eta tresnak eta prestakuntza programa espezifiko bat, taldeko irakaskuntza eta sozializazio-sareak eta parekoen arteko berrikuspena ekarriko dituzten jardurekin.
- Bitarteko langile gisa irakaskuntzan hasten den pertsonalarekin ekintza eta proposamenak martxan jartzea irakaskuntzako lanbide-ikaskuntzako prozesu honetan laguntzeko helburuarekin.



Irakasleen garapen profesionala



Egoera

- Administrazioaren eskaintza zabala eta aberatsa da, formatuetan eta edukietan askotarikoa eta, oro har, aholkularitzaren eta prestakuntzaren arloko ondorio eta gomendio berriekin koherentea den prestakuntza-ereduaren alde egiten duena.
- Irakasleen eta ikastetxeen parte-hartzea eta inplikazioa, handia eta etengabea da, eta horrek pentsarazten du, orokorrean, prestakuntza-eskaintzak, batez ere ikastetxeko prestakuntzari lotutakoak, beharrak asetzen dituela eta ikastetxeetan hautemandako arazoetara hurbiltzen dela.
- Gabezia nagusia da, ez daukagula datu propiorik, prestakuntza-tresna horrek guztiak ez irakaskuntza-jardunean, ezta ikastetxeen hobekuntzan ere duen egokitasuna, eraginkortasuna eta eragina baloratu ahal izateko.
- Beharrezkoa eta premiazkoa da irakasle-lanbidearen ikuspegi sistemikoa, eredu integral eta koherente bat diseinatzeko oinarri izango dena. Eredu horretan lotu beharko dira hasierako prestakuntza, irakaskuntza-eginkizunerako sarbidea eta bizitza osoko garapen profesionala, hezkuntza-administrazioaren eta unibertsitateen zerbitzuak baliatuta.
- Era berean, laguntza-zerbitzu guztiak berrikusi behar dira, haien jarduna optimizatzeko.



Proposamenak

- Balorazio positiboa duten hasitako programekin jarraitzea eta ikastetxeak parte hartzera animatzen segitzea.
- Irakasleek prestakuntza-jarduerak aukeratzeko dituzten beharrak eta irizpideak ezagutzea eta aztertzea, eta eskaintza haien eta ikastetxeen beharretara egokitzea.
- Plantillen egonkortasuna sustatzen jarraitzea, baita ikastetxeen autonomia zabaltzea eta indartzea, beren hezkuntza- eta curriculum-proiektua garatzeko beharrezkotzat eta egokitza jotzen dituzten lanbide-profilak ezarri ahal izateko.
- Irakaslearen figura babestea, bere lana eta hezkuntza hobetzeko eta beharrezko aldaketarako eginkizun nagusia gizartean duintzeko.
- Berritzeguneen egungo egoera sakon aztertzea.
- Irakaskuntza-jardunaren eta ikasleen ikaskuntzaren arteko loturari buruz ikertzea, Irakaskuntza-jarduna ebaluatzeko eredu zorrotzak egin ahal izateko.
- Diagnostiko-ebaluazioetan, arian-arian, irakaskuntza-jardunari buruzko galdetegiak sartzea, ikasleen emaitzei buruzko azalpenen maila handitzeko eta hobekuntza-arloak identifikatzeko irakaskuntzan, sarbidean, etengabeko prestakuntzan eta promozioan.

3.2.3. Zuzendaritza-taldeak hautatzeko, prestatzeko eta ebaluatzeko eredua



Egoera

- Zuzendaritza egoki bat eta hezkuntza-lidergo bat izatea funtsezkoa da ikasleen ikaskuntza hobetzeko, irakasleen ongizatea eta eraginkortasuna handitzeko eta, ondorioz, ikastetxearen hezkuntza-kalitatea areagutzeko.
- Ikastetxeko zuzendaritzak hautatzeko, haien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko prozesua saiatzen da zuzendaritza egonkor eta proiektudun gehiago lortzea, eta aholkularitza- eta prestakuntza-prozesu bat garatzea, hautatutako pertsonen zuzendaritza-kompetentziak handitu ahal izateko.
- Programa horrek Europa-mailan ere positiboki baloratu dute eta Hezkuntza Ikuskaritzaren aldetik inplikazio eta dedikazio handia du.
- Eskura ditugun datuen arabera, badirudi eskola-zuzendaritzak hautatzeko prozesuak behar bezala funtzionatzen duela, baina, oraindik ere, ikastetxe askotan ez da lortzen hautagaitza aurkeztuko duen talderik egotea eta proiekturik gabeko zuzendaritza izendatu behar da.
- Berritzegune Nagusiak kudeatu eta zuzendutako hasierako prestakuntza-programak eta eskualdeko berritzeguneei bultzatutako zuzendaritza-mintegiei, oro har, harrera ona dute, baina ez dago parte-hartzaileen balorazioari buruzko datuak.
- Zuzendaritza-taldeei jarraipena egiteko eta ebaluatzeko prozesuan erabilitako protokolo, tresna eta prozedurek ere, badirudi irizpide koherenteei erantzuten dietela. Irizpide horiek ondo oinarrituta eta hezkuntza-lidergoari buruzko korrante berriekin lotuta daude, eta bidea ematen dute hautatutako zuzendariak jarraitutako prozesua zabal ezagutzeko. Ebaluatutako zuzendaritza gehienek balorazio positiboa jaso dute.



Proposamenak

- Zuzendaritza-taldeen prestakuntza-programa indartzea zehaztea eta eguneratzea, ebidentzia eta esperientzia egiaztatuetan oinarritutako prestakuntza-estrategia eta ikuspegi berriak txertatuz, prozesu horretan inplikaturako pertsonen jarraipena zabalduz eta lankidetzak eta truke-sareak sor daitezela sustatuz.
- Ikastetxe publikoek zuzendaritza egonkorrak eta zuzendaritza-proiektudunak izan ditzaten lagunduko duten prozesu guztiak abian jartzea.
- Zuzendaritzari prestigioa ematea eta zuzendaritza-taldeen lidergoa bultzatzea, horretarako behar den guztia emanez.
- Ikastetxe publikoetako zuzendaritzak hobetzea, zuzendaritza-eginkizunaren esparru berri batekin. Esparru horrek argi eta garbi zehaztu behar ditu zuzendaritzen eginkizunak, eskumenak eta erantzukizunak, karguan sartzeko behar duten prestakuntza, beren zeregina egiteko baliabideak eta pizgarriak ere (ekonomikoak eta irakasle-karrerakoak).
- Zuzendariak Hezkuntza Sailaren osagai estrategikotzat hartzea eta, hortaz, Administrazioak abian jarri nahi dituen funtsezko neurri, programa eta proposamenetan kontsultatu behar direla aintzatestea.
- Ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeen arteko lankidetzak bultzatzea, esperientziak partekatzeko, elkarrekin gogoeta egiteko eta hezkuntza-kudeaketaren hainbat arlotan proposamenak egiteko topaketa-esparruekin.

